

EUSKAL AUTOGOBERNUA EGUNERATZEKO OINARRIAK

Maiatzak, 2016



Euzko Abertzaleak Legebiltzar Taldea
Grupo Parlamentario Nacionalistas Vascos



AURKEZPENA

Agiri honetan jasotzen da lehenengo eta behin alderdi politikoek Eusko Legebiltzarreko Autogobernu Lantaldean X. Legealdi honetan garatu izan duten lanaren laburpena.

Ekarpen ezberdinak jasotzen dira hasiera batean identifikatu ziren gai nagusien arabera, gai bakoitzari dagozkion ondorioak planteatzeko, Ganberako taldeek aurkeztu zituzten hurrenkeran. Tesi horiek Lantaldean hitz egin zuten adituen ekarpen doktrinal eta politikoek luze-zabalean aberastuak izan ziren.

Ondorioz, laburbilduz jasoko ditugu Euskal Ganberan orain dauden talde ezberdinek (UPyD, Euskal Talde Popularra, Euskal Sozialistak, EH Bildu eta Euzko Abertzaleak) bi alorretan adierazitako planteamenduak:

- Orainari dagokionez, egiten duten diagnosia une honetan daukagun autogobernuaz, eguneratzeko eman daitekeen abaguneaz, Espainiako autonomien sistema une honetan inguratzen duten baldintzez eta demokrazia eta legezketasun printzipioetan ditugun aurreikuspenez.
- Etorkizunari dagokionez, autogobernua gorpuzten duten faktoreak: bere euskarri historiko eta kulturala, gure erkidego politikoaren nortasuna eta baliabide materialak edo tresnak: botere funtsa, bermeak, finantza erregimena, euskal hizkuntzaren babesa eta harreman sistema Europar Batasunaren baitan.

Eusko Legebiltzarrak, Autogobernu Lantaldearen baitan eginiko lanaren ondoren ezarriko du euskal autogobernua eguneratzeko oinarri politikoak zein diren.

Prozesu horretan, etorkizun hurbilean burutzea espero duguna, gure ustez oinarritzko proposamena ezagutzera ematea eta herritarrek zentzu horretan parte hartzea ahalbidetu beharko da.

Adostuko diren oinarriak hartu beharko dira Euskal Autonomi Erkidegoan estatutuen erreformarako oinarritzko printzipiotzat edo topagunetzat, eta horien oinarrian idatziko da oraingo Autonomia Estatutua aldarazteko egitasmo politiko eta juridikoa, indarrean dagoen lege prozeduraren arabera Eusko Legebiltzarrean izapidetu beharko dena.

I.- TALDEEN JARRERA

UPyD

1.- Diagnostika eta eguneratzeko abagunea

Uste du Konstituzioak eta Estatutuak euskal gizarteari eman diotela oparotasun eta ongizate maila handia, baina era berean uste du beharrezkoa dela eguneratzea eta aldaraztea.

Estatutuak eguneratzea eta aldaraztea behar du eta, hori baino lehenago, Konstituzioa aldatu beharko da klabe federal, simetriko eta solidarioan. Ez da abertzaleen nahien arabera egin behar.

Konstituzioa aurretiaz aldaraztea bilatzen du, klabe federal eta simetrikoan; hiritar guztien berdintasuna sendotzeko. Senatua ezabatzea; Aldi Baterako Laugarren Xedapena ezabatzea, Lehen Xedapen Gehigarria ezabatzea, estatu laikoa; toki administrazioaren erreforma, aldundiak ezabatzea eta udalerrien bat egitea; osasun, hezkuntza eta ondasun bakarra Estatu osoarentzat; Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Auzitegi Konstituzionala, Fiskaltza Nagusia despolitizatzea; LOREG barruti bakarrarekin.

Ez ditu euskal eskubide historikoak aitortzen eta Espainiar Konstituzioaren Lehen Xedapen Gehigarria ezabatzea babesten du.

2.- Eduki materiala

UPyD taldeak proposatzen du Estatuari eskuduntzak (osasuna, hezkuntza, zergak) itzultzea eta, oro har, espainiarren berdintasunarekin zerikusia duten guztiak. Administrazioa deszentralizatzea babesten du.

Era berean proposatu du Ekonomia Ituna ezabatzea.

TALDE POPULARRA

1.- Diagnostika eta eguneratzeko abagunea

Talde honek agerian utzi nahi izan du Gernikako Estatutua izan dela aldarazia izan ez den apurretako bat. Saiakera bakarra izan zen 2003ko Estatutu Politikoa egin zenekoa eta aniztasun faltagatik eman ziren zatiketa, elkarren aurka egotea eta planteamendu anti-demokratikoa. Gernikako Estatutuak ematen du munduan dagoen eskuduntza eta autogobernu mailarik handiena. Gizarte Segurantzak eta kutxa bakarrak pentsioak mantentzen dizkigute eta bestela ezin izango genituzke ordaindu. Interpretazio arazoak oso txikiak izan dira batzuek, sistema auzitan jartzeko helburuarekin, balizko urraketan inguruko txostenetan handitzen dituzten arren. Euskal Autonomia Erkidego Estatutuak lehenago inoiz existitu izan ez den erkidego politikoa ezarri zuen. Alderdi Popularrak Estatutuaren ikuspegi positiboa dauka, lankidetzeta eta kooperazioa areagotu ahal dela aitortu arren.

PPren aburuz, Konstituzioak eta Estatutuak eraginkortasun praktikoa eta benetako indarra ematen diote euskal eskubide historikoei, Konstituzioaren markoaren baitan ezarriz.

2.- Eduki materiala

Ekonomia Itunaren defentsa azpimarratu dute eta Konstituzioa eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuak babestu egiten dutela ulertzen dute, gure autogobernuaren tresna finantzarioak nagusia delako. Baliabide publikoak hobeto baliatzeko aukera ematen du.

EUSKAL SOZIALISTAK

1.- Diagnostika eta eguneratzeko abagunea

Ulertu egiten dute Estatutua esperientzia arrakastatsua izan dela alderdi guztietatik. Ezin da ordezkatu adostasun maila berdintsua edo handiagoa izango ez duen besteren batekin eta autogobernua Espainia anitz eta Europa batuaren markoan indartzeko ez bada, betiere indarrean dagoen legeriaren arabera izapidetua. Estatutuan eta Ekonomia Itunean jasotzen diren autonomia politiko eta finantzarioak Euskadi jarri dute herrialde modernoek maila berean, bere burua gobernatzeko ahalmenari dagokionez. Estatutuan ezarritako aurreikuspenak osorik bete ez izanaren erantzukizuna Espainiar Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak partekatzen dute, eta horietan bietan egon diren talde politikoek ere bai. Euskadiko alor batzuetatik "urratze" izenarekin aurkeztu dira lege batzuen irismen edo aplikazio mailaren inguruan egon diren interpretazio ezberdinak izan direnak. Horren paradigma da Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketari dagokion kapitulua. Eskuduntza batzuen kasuan momenturen batean Eusko Jaurlaritzak ez ditu eskatu baina beste momentu batean bai eskatu ziren taktika politikoak edo oportunismo nahiak gidatuta, unean uneko inguruabarrek eskualdatzea egingarri egiten ez zuten momentuan. Esate baterako, espetxeen erregimena. Eskualdatzeke dauden gaiak oso izaera ekonomiko mugatua dute. Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoari dagokionez -garrantzirik handiena duen gaia- argi dago gai honen inguruan sortzen den interpretazio arazoa, 18.2 artikulua eta aldi baterako bosgarren xedapena gauzatzen saiatzeko orduan. Abertzaleek Kontzertuaren mekanismoa Gizarte Segurantzaren esparruan aplikatzeko duten asmoa betetzeak suposatuko luke "sistemaren izaera unitarioa" eta beraren "solidarotasun printzipioa" apurtzea. Hau da, Estatutua ez betetzea. Gizarte Segurantzaren kuxaren batasunaren printzipioa ukaezin jotzea, Estatuko Gizarte Segurantzaren sistema batuaren markoan hitzarmena izenpetzearen bidez EAEren parte hartzea egingarri egiteko aukera kaltetu gabe. Enplegu politika pasiboen kasuan beren kudeaketa geureganatzeko orduan Administrazio zentralarekiko hitzarmena adostu beharko litzateke, Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikorako Estatutuan ezartzen denari jarraiki.

Uste dute Autonomi Erkidegoen ardurapean eskuduntza betearazle ez nahikoa jarri dela; Estatuaren eskuduntzak besterentzeko aukeraren noizbehinkako erabilpena egin dela (Espainiar Konstituzioaren 150.2 art); Europar legeria garatzekoak oinarritzko jotzen diren neurrian Estatuak bere gain hartu dituela gogoan. Arazo horietako askoren jatorria dago Konstituzioaren VIII. Tituluan Estatu federalen berezko mekanismoak aurreikusi ez izanean (zehatz-mehatz Federazioaren besteren ezinezko eskuduntzak zehaztea eta gainerako guztiak Estatu Federatuen ardurapean lagatzea) eta herrialde mailako ordezkartza-ganbera gisa garatuko litzatekeen Senaturik eza, eta horrek Autonomi Erkidegoei eragotzi die estatu mailako botere legegilean jardutea. Egoera horrek eskumen mailako

gatazka nabarmena ekarri du, Auzitegi Konstituzionala lanez zamatuta eta desgastatuta duena, Karta Nagusiaren interprete gorenaren heinean dagokion egitekoan. Autonomien Estatuaren funtzionamenduaren 36 urteen balantzea osatu gabe geratuko litzateke funtsezko jotzen dugun zerbait aipatu gabe utziko bagenu: Espainia anitzaren nazionalitate eta erregioen autogobernua ez da erabat gogobetetzekoa izango oraingo herrialde ereduaren egiturazko erreformak burutu ezik.

Euskadiko Sozialistek aldeztu dute Konstituzioaren erreforma federala egitea Gernikako Estatutuan jasota dauden eskuduntzak eta beren bermeak eguneratzen diren une berean edo horiek baino lehen. Aldez aurretik Konstituzioaren erreforma egitearen abantailak: Gernikako Estatutua, Euskadiko Konstituzioa den heinean eguneratzeko bideratu ahal den prozesurik egokiena da. Segurtasun juridikoa eskaintzen du. Bateragarri egiten ditu eskubideen oinarritzko berdintasuna eta asimetria.

Euskal herriaren eskubide historikoen aitortza ikuspuntu juridikotik egikaritzen da Estatu komunaren barruan egoteko formula gisa, era propio batez eta gainerako Autonomi Erkidegoengandik bereizita. Euskadiren eskubide historikoak ezin dira beste herrialde batean aldarrikatu, eta Konstituzioaren barruan baino ez dute zentzutik.

Estatutuaren erreformari lege ezarrita dauden arau eta prozeduren arabera ekin behar zaio. Ezinbestekoa litzateke legebiltzar taldeen proposamenetan zehaztea legebiltzarraren aginte esparruan eta Autonomi Estatuaren sartzen direnak eta, beste alde batetik, esparru hori gainditzen dutenak, Konstituzioaren markoan sartzen direlako.

2.- Eduki materiala

Euskal Sozialisten aburuz "botere funtsa" kontzeptua filosofia politikoaren eraikuntza lausoa da, eduki zehatza duen Zuzenbide alorreko terminoa baino. Konstituzioan eta Estatutuan aitortzen diren eskubide historikoen aitortzatik kanpo ez dago euskal herriaren burujabetza funtsik edozein momentutan aldarrika daitekeenik, aldebakartasunez Espainiar estatu barruan edo estatutik kanpo egon nahi den erabakitzeko.

Ulertu egiten dute Ekonomia Ituna Euskadiren autonomiaren funtsezko elementua dela eta gure autogobernua bereizi egiten duena. Tresna horrek ere lagundu du Euskadi Espainian txertatzen.

Estatutuan atal berezia sartzea proposatzen dute, Estatuko Gobernuarekiko harremanetarako mekanismoak jasotzeko. Atal horretan aldebitasun printzipioaren aplikazioa bermatuko litzateke EAEk eskuduntza eskusibo bakana duen gaietan (Ekonomia Ituna, Segurtasuna-Polizia) eta parte hartze komuna partekatuta dauden eskuduntzetan eta lankidetzak mekanismo federalen bidez (Senatuan nagusiki)

EH BILDU

1.- Diagnostika eta eguneratzeko abagunea

Bere abiapuntua da historikoki euskal herriaren burujabetza egon badagoela eta hori da euskal lurraldeetan bizi izan diren pertsonen mendeetan adierazi izan duten borondatea eta egin duten ahalegina, beren bizimodurako baldintza ekonomiko, sozialak eta kulturalak hobetzeko. Era berean baieztatu dute Espainiar eta Frantziar estatuek mendeetan borondate eta ahalegin hori mesprezatu egin dutela. Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako herrialde historikoetan azken 40 urteotan bi gertakari garrantzitsu izan dira euskal herritargoak bere burua gobernatzeko etengabe erakutsi izan duen borondatearen inguruan: 1979ko Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutua eta 2004ko Estatutu Politikoa (Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutu Politikoa), eta biak dira aintzat hartu beharrekoak. Egiaztatuta geratu da Estatuaren aldetik Estatutua osorik bete gabe utzi dela eta etengabe ukatu izan zaiola estatutuaren bidez garatzea. Horrek agerian uzten ditu euskal autonomiarekiko errespeturik eza eta Estatutua osorik garatzeko borondate eskasa.

Era berean ulertzen du indarrean dagoen sistema autonomikoak berarekin dakarrela Estatuarekiko mendekotasun harremana eta euskal herriaren jatorrizko burujabetza ukatzea, euskal herritargoari bere aniztasuna kudeatzeko eta esparru sozio-ekonomiko eta kulturean garatzeko behar dituen tresnarik gabe uztea, horiek ere beharrezkoak direlarik herritargoa ongizate maila egokia bermatzeko. Baieztatu du oraingo autogobernu markoa agortuta dagoela, 1979ko Autonomi Estatutua agortuta dagoela, 1979ko Autonomi Estatutuaren arabera erkidego politikoa osatzen duten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritargoarentzako estatus politiko berria behar dela. Oraingo marko autonomikoak ez ditu behar besteko tresnak eskaintzen XXI. Mendean bizitza baldintza duinak eta kohesio ekonomiko eta sozial duinak izateko edo garapenerako ahalmen hobeak baliatu ahal izateko. Gaur egun burujabetza mailarik handiena eskaintzen duen tresna juridiko politiko bakarra da Estatu propioa eratzea. Autonomien Estatuaren esperientziak ez du lagundu Euskal Herri osoko herritarren artean dauden harreman naturalak areagotzen edo indartzen, guztiz alderantziz, elkarren kontra jarri baititu. EHko erabaki esparru ezberdinetako borondate demokratikoaren bidez eta erakunde esparru ezberdinen arteko lankidetzaren bidez, Euskal Herria osatzen duten herrialde guztientzako erabaki esparru burujabea lortzea bilatzen da.

Ez du uste Espainiar Estatuaren baitan konstituzioaren balizko erreformarako aukerarik eman daitekeenik Espainiar Estatuko herri ezberdinen nazio nortasuna aitortzeko eta bakoitzaren prozesu burujabeen emaitzak errespetatzea adosteko, indarrean baitago oraindik estatuko indar politikoek Espainiaren banaezintasunari eta bere lurraldearen osotasunari buruz adostu zuten hitzarmena. Estatuko herrietan elkarrekiko errespetuan oinarritutako den prozesu konstituziogileen

dinamika garatzearen aldeko agertzen da. Erritmo ezberdinak eta izaera ezberdina izango duten prozesu konstituziogile izan litezke eta EH Bildu prozesu konstituziogile ezberdinen arteko sinergia etengabeak bilatzeko prest agertzen da, herri bakoitzari bere etorkizunaren jaun eta jabe bihurtzeko aukera emateko.

Euskal eskubide historikoak badirela eta indarra dutela aitortzen du eta ez dio burujabetza maila handiagoak lortzeko prozesuan horiek baliatzeari uko egiten.

EH Bildurentzat, Euskal Herria zazpi euskal herrialde historikoek osatzen dute eta autodeterminatzeko eskubidea dauka. Eskubide hori egikaritzera begira, parametro demokratikoen arabera burutzea planteatzen du, erabakitzeko eskubidearen bidez eta herritargoaren borondate demokratikoaren arabera eta oraingo egitura juridiko politikoaren bidez, hiru erabaki esparrutan banatuta eta erabakitzeko eskubidearen egikaritzera begira esparru bakoitza erabaki esparru propioa izanik. Gure etorkizuna erabakitzeko ariketa libre eta demokratikoa da nork bere buruaren nazio nortasuna aitortzeko eta autodeterminazio eskubidearen subjektua eratzeko lehen urratsetako bat, alegia. Erabakitzeko eskubidearen egikaritza demokratikoak berarekin dakar bere ibilbide orriak une oro errespetatu beharko duela herritargoaren borondate demokratikoa. Prozesuak gardena izan behar du eta edonolako apurketa soziala saihesten saiatuko da, ahal denik eta integrazio mailarik handiena bilatuz.

2.- Eduki materiala

EH BILDUK ez die orain arte lortutako autogobernu tresnei uko egin nahi, eta horiek baliatu nahi ditu prozesu burujabe gradual eta progresiboa burutzeko, EAERI burujabetza osoa emango diona. Prozesu honen bidez gaindituko litzateke une honetan Espainiar Estatuarekiko dagoen mendekotasun egoera, eta behar besteko ahalmenak eta tresnak emango litzioke euskal gizarteari orain arte lortutako kohesio maila bermatu ahal izateko eta geroan ere are gehiago garatzen segitzeko. Helburua herritargoaren ongizatea bermatzeko lor daitekeen burujabetza mailarik handiena lortzea den arren, lehentasun zerrenda bat planteatzen du estatus berriarekin garatu beharko liratekeen horiekin, hau da, estatus berriak berarekin ekarri beharko lukeen botere funtsa berria:

- Gizarte Segurantzaren sistema propioa egituratzeko eta garatzeko.
- Lan harremanetarako esparru propioa sortzeko.
- Politika aktiboak garatzeko.
- Ekonomia eta finantzak antolatzeko.
- Banku propioa sortzeko.
- Produkzio sistema osorik garatzeko.
- Etxebizitza izateko eskubide subjektiboa bermatzeko.
- Osasun sistema unibertsala hobetzeko/garatzeko.
- Azpiegiturak planifikatzeko eta erabakitzeko.

- Ezagutza eta baliabide publikoetan oinarritutako ikerketa eta berrikuntza sistema garatzeko.
- Garapenerako eredu alternatiboen alde ikerketa larroak irekitzeko.
- Hezkuntza sistema propioa egituratzeko.
- Euskararen ezagutza alorrean eskubide subjektiboa bermatzeko.
- Justizia Administrazio propioa sortzeko eta garatzeko.
- Espetxe politika propioa burutzeko
- Herritargoaren babeserako eredu integrala eratzeke.
- Herritargoa arautzeko.
- Euskal Herriko beste herrialdeekiko harreman esparru eraginkorra zabaltzeko eta eratzeke.
- Estatuz gaindiko erakunde eta esparruetan ordezkariak propioa izateko.

EH BILDUK uste du autogobernu bermerik onena dela euskal herritargoak berak osatzen duena eta behar besteko parte hartze bideak izan behar ditu dagokionean gehiengo baten borondatea adierazteko. Herritargoa prozesuaren protagonista bihurtzeko beharra planteatzen du eta prozesuaren parte senti dadila, euskal erakundeekin lankidetzan.

EUZKO ABERTZALEAK

1.- Diagnostika eta eguneratzeko abagunea

Bi alderdi antzeman dituzte balorazioan; alde batetik ikuspegi positiboa, hau da, ongizate maila nabarmena eta ahalmen instituzional handia lortu dira. Beste alde batetik dago ikuspegi negatiboa, hau da, osorik bete gabe dagoen Estatutua, transferitu gabe geratu diren eskuduntzek eta Estatutuaren garapenean eman diren atzerapen prozesuek narriatua - eta horrek berarekin dakarren kalte ekonomikoarekin- zein ahalmen politikoak eta nortasun ahalmenak (euskal nazio errealitatearen identifikazioa) aitortu ez izanagatik indargabetua.

Testuinguruari dagokionez, uste dute errealitateak bi Autonomi Erkidego mota aitortzen dituela:alde batetik, beren burua gobernatzeko talde borondatea dutenak eta, beste alde batetik, Estatuaren erabakiz sortu direnak estatuaren beraren antolaketarako. Beraien gain prozesu deszentralizatzailerik homogeneoa eman da, asimetriarik gabea, lehendabizi aipatu diren horien "nazio politiko" sentimenduaren inhibizioa eraginez kalitate baxuko autonomia gisa sortu dena bai Estatutuetan- iturri sistemak aldatuta- zein Estatuak duen nagusitasunean politika publiko uniformeak ezartzeko orduan.

Ulertzen dute, espainiar Konstituzioaren aldarazpenaren oinarriak eragingo digunari dagokionez, oinarri horiek euskal nazioaren aitortza politikoan eta bere erabaki gaitasunaren, aldebikotasunaren eta euskal erakundeen berme sistemaren aitortzan oinarrituta egotea babestuko luketela. Ezinbestekoa da azken aldia konstituzioan gertatu den mutazioa mugatzea eta Konstituzioaren aldarazpenerako prozedura formalaren zorroztasuna arintzea, prozesua egokituz gizartearen aldaketa naturalei erantzun dioen belaunaldi etapa ezberdinetara.

Konstituzioaren aldetik eskubide historikoak aintzat hartzeak berarekin dakar Euskal Herria erabakitzeko eskubidea duen subjektu gisa aitortuko dela eta bere borondatea, demokratikoki adierazia, errespetatua izango dela. Eskubide horien jatorrizko zilegitasunak merezi duen errespetua ezin du inolako erreformak auzitan jarri eta hierarkikoki ere ezin dira beste ordenamenduren pean jarri.

Legezko eta zilegi jotzen dute estatus politikoa eguneratzea. Gainera, jardura hau ere konstituzionala ere bada Konstituzioaren markoak Euskal Herria errealitate politiko eta historiko gisa aitortu duela ulertzen bada. Garrantzitsua da jardura honen zilegitasuna duen subjektua zein den zehaztea, subjektu hori historikoki nazio nortasun bat izan duten herrialdeekin identifikatzen dena, baina argi utzirik herrialde bakoitzeko herritargoak izan beharko duela ordenamenduarekiko bere erkidego politikoaren momentu egokia aukeratu beharko duena. EAEn kasuan Legebiltzarra da zilegitasun hori duena. Prozedura ere garrantzitsua da eta indarrean dagoen ordenamendua aldarazia izan daiteke estatutuen aldarazpenerako beharko den marko formal berria sartzeko. Legea beharrezkoa da baina ez da nahikoa,

leialtasuna eta elkarrekikotasuna behar dira itunak betetzeko orduan, bete behar direnak behin eta berriz bete gabe uzteak estatuko zilegitasuna galtzea ekartzen duelako. Kanadako Auzitegi Gorenak goratzen dituen printzipioek- demokraziak, konstituzionalismoak eta zuzenbidearen nagusitasunak- elkarrekin harremanetan dauden elementu gisa funtzionatzen dute eta horietako bakar batek ere ez du beste bien aplikazioa baztertzeko. Auzitegi Konstituzionalak behin eta berriz adierazi du ez duela zilegitasunik onartuko Konstituzioarekiko adostasunik ezean; horrek ez du aldarazpena eragotziko, legean jasota dauden prozeduren arabera planteatuko delako, baina aldarazteko proposamenak negoziaketa prozesua ireki beharko duela aitortzeko borondate politikoarekin, printzipio demokratikoa betetze aldera.

Demokrazia ordezkatzailaren eta demokrazia zuzenerako tresnen arteko uztardurak egoki jotzen dira aldarazpen prozesuei begira. Estatutu proiektua izapidetu baino lehen erreferendum gaitzaile berria egitea aurreikusita zegoen II. Errepublikako Konstituzioan, eta hori da proposatzen dena Euskadiko Autonomia Estatutuaren oraingo aldarazpenerako - euskal herritargoaren erreferendum gaitzailea proiektua Espainiar Gorteetan izapidetu baino lehen- indarrean dagoen prozedurak Estatutu aldarazteko prozesura ixten duen berrespen erreferenduma besterik aurreikusten ez duen arren. Bide hau ere Estatuak baimen lezake, bera delako kontsulta-erreferenduma deitzeko ahalmena duena, baimen bereziaren bidez zein erreferendum modalitateak arautzen dituen 2/1980 Lege Organikoaren aldarazpenaren bidez.

Euskal autogobernuaren eguneratze prozesua zilegitasun printzipioaren arabera garatu beharko da. Halaber, herriaren borondatearekiko errespetuak une oro aurkitu beharko du aplikatzeko bidea eta ordenamendu juridikoan lotzeko puntua. Printzipio Demokratikoak exijitzen du euskal herritargoaren erabakiari balio garrantzitsu eta nagusia ematea, eta horrek berez eskatzen du Estatuak Konstituzioari egin beharreko doikuntzak negoziatzea eta adostea euskal herritargoak bere borondatea adierazteko gurariari erantzutea xede, azken finean, aldebakartasun printzipioa baztertuz.

2.- Eduki materiala

Lehenengo eta behin ulertzen dute ezin dela eskuduntzen oraingo banaketa ahaztu, zeinetan independente edo eskumen eskusibo jo daitekeen materialik ez dagoen. Egoera honen aurrean, estrategiarik onena izan da Estatuak esparru material eta funtzioen alorrean Euskadirekiko izan duen ahalmena selektiboki modulatzeko, Autonomi Erkidego honi nolabaiteko berezitasuna emanez. Hori dela eta, eskumen banaketari dagokionez, Euskadirentzat eskuduntza eskusiboen egokitze berezia proposatzen da esparru material zehatzetan (kultura, hizkuntza, hezkuntza, segurtasun publikoa, baliabide naturalak, finantza eta tributuen sistema, etxebizitza, lan harremanak, kanpo harremanak eta azpiegiturak). Partekatutako eskuduntzei begira, esparru ekonomikora mugatzen direnak,

negoziaketarako alde biko erakundea sortzea proposatzen da. Bermatu egin behar da kudeaketa publikoa eta zerbitzuen prestazioa euskal erakundeen ardurapean utziko direla.

Ekonomia Itunaren biziraupena eta ituna bera indartu beharra aldeztzen dute, honen barnean integratzen dituelarik Estatuarekiko harremanari eskatzen zaizkion subjektu izaeraren elementu historiko eta juridiko-politikoak, alde bikotasuna eta bermeak, orain behar duen eboluzioan ahultasun zantzuak antzeman daitezkeen arren kupoaren eguneratzearen zehaztugabetasunari buruz eta Auzitegi Konstituzionalak eredu ekonomikoaz Espainiar Konstituzioaren 135. artikulua egiten duen interpretazioari buruz, era kaltegarrian eragin dutelako Ekonomia Itunaren bidez arautzen den tributuen eta finantzen autonomia.

Bideak eta tresnak daude bermeen gaia aztertzeko eta ebazteko. Tresna bat da Estatutua aldarazteko prozedura aldatzea, aldarazpen proiektuaren beraren inguruko kontsulta gaitzailea sartuz, Estatuarekin izapidetu eta negoziatu baino lehen. Horrekin batera emango litzateke Auzitegi Konstituzionalaren Lege Organikoaren aldarazpena indargabetzea, Estatutu egitasmoetarako alde aurreko inkonstituzionaltasun errekurtoa aurreikusten duena. Beste tresna da Auzitegi Konstituzionalaren Lege Organikoaren arauak aldaraztea (30. artikulua) euskal erakundeen legee eta lege-arauei ematen dietena 161.2 artikulua automatikoki eteteko ahalmena. Hirugarrenez, Konstituzioaren erreforma prozedura gaizkiagotua aldaraztea; hau da, Espainiar Konstituzioaren 168. artikulua malgutzeko. Beste alde batetik, egokia da gatazkak konpontzeko bide politikoak indartzea Euskadi eta Estatuaren arteko gatazkak ebazteko Epaimahaiaren bidez, eta bizitza juridiko-politikoan egiteko garrantzitsua duten Konstituzioaren organoetan parte hartzea. Amaitzeko eta, barne esparruari dagokionez, onuragarria litzateke Estatutua Bermatzeko Kontseilua eratzea.

Era berean aldarrikatu behar dugu Espainiar estatuaren eta Euskadiren arteko harreman politiko-instituzionala berregituratzeko beharra. Indarrean dagoen sistemak, Ekonomia Itunaren formula salbuetsita, Euskadiko Erkidegoa Estatuarekiko mendekotasun egoeran kokatzen du, eta azken honek azken aldia hartu dituen erabakiek nabarmen urratu dute gure Estatutuan definitatutako autogobernu printzipioa.

Hori dela eta, beharrezkoa da alde biko harreman sistema ezartzea, aurretiaz, parte bi horiek beraiei dagozkien akordioak adosteko (euskal autogobernua eguneratzeko hitzarmena) eta bere garapenean eta aplikazio prozesuan sor daitezkeen auzi eta gatazkak konpontzeko gaitasuna duten subjektu politiko izaera elkarri aitortuta. Parte bien arteko oreka suposatzen duen alde bikotasun eskemak elkarbizitza hori, koordinazioa eta elkarren arteko akordio askea bermatzen ditu, lortutako akordioak alde bakarretik aldarazteko aukera saihestuz (pase forala).

Alde biko harremanerako sistemaren egitura Ekonomia Itunean oinarritu behar da, hau da, bere arauak, barne organoek eta funtzioek, logika eta sen onez ezartzen baitute alderdi bien arteko adostasun printzipioa.

II.- EUSKAL AUTOGOBERNUA EGUNERATZEKO OINARRI AKORDIOA

Eusko Legebiltzarraren Autogobernu lantaldeak lan luze eta zabala garatu du oraingo legegintzaldi honetan. Legebiltzar talde guztiek beren tesiak eta planteamenduak azaldu dituzte eta, era berean, lantaldearen bilkura ezberdinetan parte hartu duten eta hitz egin duten adituen ekarpen dotrinalak egiaztatu dira.

Legebiltzar talde ezberdinek euskal autogobernuaren eguneratzea inspiratu behar duten oinarriei buruz adierazi dituzten planteamenduak, esandako lantalde horretan zehetasun handiz azalduak, oso anitzak dira. Aniztasun hori printzipio zehatz batzuetan eta eguneratze horretarako oinarri gisa aitortzean fokalizatzen da.

Dena dela, ezbai horiek zein diren argi izanik ere, edozein kasutan, autogobernua aldarazteko oinarrien gaineko irizpide eta jarrera komunak daudela gogoratu behar dugu, eta horretarako egoki jotzen dugu, Autogobernu lantaldea itxi baino lehen, gure Legebiltzar Taldeek hala adieraztea eta, ondorioz, oinarri horien gaineko akordio-adierazpena formalizatzea.

Autogobernua eguneratzeko prozesuaren zimentarria diren oinarriak. Prozesu horrek ezinbesteko bektore izan beharko du hurrengo legealdian, zeinetan gure Autonomia Estatutua aldarazteko proiektua izapidetu, eztabaidatu eta onartu beharko den.

Laburbilduz, gure Legebiltzar Taldeek onestea adostu dute hurrengo

ADIERAZPENA (AKORDIOA)

Lehena.- Oinarrizko printzipio komunak

Akordio honek jasotzen ditu behean izenpetzen dugun Legebiltzar Taldeek euskal autogobernuaren eguneraketaren inguruan adostu ditugun oinarrizko printzipioak. Printzipio komunak dira, Eusko Legebiltzarraren Autogobernu Lantaldean eginiko lanaren emaitza eta ondorio gisa adostu direnak, talde bakoitzaren berezko jarrerari zor zaion errespetua kaltetu gabe, betiere.

Bigarrena.- Autogobernua eguneratzea: hurrengo legealdia

Gernikako Estatutua, herritargoak berretsia, funtsezko tresna izan da euskal biztanleriarentzat. Bere autogobernua baliatu duen gizartea da eta egikaritzea honek ekarri du garapen eta ongizatearen aurrerapen ukaezina.

Estatutuak, indarrean jarri zenetik ia hogeita hamazazpi urte igaro direlarik, beharrezko du berriztatzea, egokitzea eta aurrera egitea, eta onartzen dugu eguneratzeko prozesu hau hurrengo legealdian hasi, izapidetu eta onartu beharko dela. Euskal herritargoaren erabakia, dagokion erreferendum bidez, Euskal Herriak eguneratze horren aurrean duen borondatea adieraziko duena.

Euskal autogobernuaren eguneratzea ezin da konstituzioaren aurretiazko erreformaren onarpenaren mende egon. Agerian dago nazio erkidego historikoa garela eta hori Konstituzioak ere aitortzen du.

Edozein kasutan, eredu autonomikoaren aldarazpen konstituzionalari ekingo balitzaio, erreforma horrek barnean hartu beharko luke euskal autogobernua bere osotasunean eta bere ulermen zabalenean, asimetria eskema baten barruan, Euskal herriaren errealitate nazionala aitortuta, bere berezitasun historikoak, juridiko-instituzionalak, linguistikoak, kulturalak eta euskal herritargoaren borondate demokratikoarekiko errespetua aintzat hartu eta barnean har ditzan.

Hirugarrena.- Demokrazia eta zilegitasun printzipioen egikaritzea

Euskal autogobernuaren eguneratzean zilegitasun printzipioari erantzun behar zaio.

Dena dela, zilegitasun printzipioa errespetatzeak ezin du printzipio demokratikoa urratzea ekarri. Printzipio honek lehen mailako balore garrantzitsua eman behar dio euskal herritargoaren borondateari. Printzipio hori, indar berberarekin edo are indar handiagoarekin ere bada indarrean dagoen legeria.

Demokrazia eta zilegitasun printzipioak errespetatzea eta printzipioen egikaritzea izango dira euskarri sozial eta politiko nagusiak, euskal autogobernua eguneratzeko bidean aurrera egiten lagunduko diguten balore eta erreferenteak zehazteko orduan.

Laugarrena.- Eskubide Historikoak eta Euskal Herria

Espainiar Konstituzioak aitortzen dituen euskal eskubide historikoak eta bere marko juridiko berezitan zaintzea eta garatzea planteatzen dituen horiek euskal autogobernuaren bakantasuna interpretatzeko eta errespetatzeko indarra duten lege mekanismoak azaltzen eta eskaintzen dituzte. Eskubide historiko hauen titularra Euskal Herria da eta bere nazio nortasuna da aitortzen zaion errealitate juridiko eta instituzionala oinarritzen duena.

Euskal autogobernuaren aldarazpenak eskubide historikoen eguneratzea hartu beharko du kontuan.

Bosgarrena.- Botere funtsa eta Ekonomia Ituna

Euskal autogobernuak Estatutuan aitortzen zaizkion eskuduntzen apurketa prozesua pairatu izan du azken hamarkada hauetan. Apurketa honek hainbat alderdi ditu. Hauen artean, transferentzia batzuk burutu gabe daudela eta Estatuko Erakunde Zentralen aldetik eredu autonomikoa birzentralizatzeko erabaki legal edo betearazleak hartu direla.

Hori dela eta, beharrezko jotzen dugu autogobernua eguneratzeko prozesuak gure eskuduntzek osatzen duten ondarea berriztatzea jasotzea. Berriztatze honek barnean eraman beharko du botere funtsaren eraldaketa, eskuduntzen banaketaren berrikusketa, gure Erkidegoari dagozkion eskuduntza eskusiboen eta bere blindaje juridiko eta instituzionalaren aitortpenarekin, subsidiarioritasun eta hurbiltasun printzipioak eta hondar-klausularen printzipioa Euskal Erakundearen alde aitortuta.

Era berean ekin beharko zaio Ekonomia Itunaren erregimen finantzario, ekonomiko eta fiskala eguneratzeari.

Seigarrena.- Europar Batasuna eta harreman sistema

Euskal autogobernuaren eguneratzea, bere estatutu politiko berriaren eskuduntza funtsarekin ados, Euskadik Europar Batasunean, nazioarte mailako erakunde eta organismoetan eta nazioarteko proiektzioan eta kanpo harremanetan ordezkaria izateko duen ahalmena aitortuko du.

Estatutu berriak aitortuko eta arautuko ditu herritar guztien garapen sozialerako eta gizarte, ekonomia eta kultura mailako ongizaterako egokien joko diren udal eta herrialde mailako lotura politikoak eta barne harremanak, eta muga bakarrak izango dira herritargoaren borondatea eta herritargo hori ordezkatzeko duten Erakundeek hartutako erabakiak.

Estatutu berriak, era berean, Nafarroako Foru Komunitatearekiko eta Iparraldeko euskal herrialdeekiko lankidetzaren harremanetarako formula eta metodoak arautuko ditu.

Zazpigarrena.- Espainiar Estatuaren eta Euskadiren arteko harreman politiko-instituzionala

Etorkizunera begira sor daitezkeen ezbaiek eta gatazkek berme juridikoen eredu berria beharko dute baliabide berdintasun eta adostasun printzipioak errespetatuko dituen, prozedura hertsatzaileen gainetik prebentzio eta lankidetzaren prozedurak sustatuz.

Edozein euskal autogobernu itunaren berme juridiko eta politikoa Gernikako Estatutuaren xedapen gehigarri bakarrean aldarrikatutako ezin besterenduzko eskubideei zor zaien errespetuan gordeko da.

Zortzigarrena.- Euskal hizkuntza babestea

Euskara, beste hizkuntzekin gertatzen den bezala, nortasun faktorea eta komunikatzeko bidea da, eta oinarritzkoa da gure gizartearen bizikidetza eraikitze prozesuan. Guk bilatzen dugun helburua da bizikidetza harmoniatsua, zeinetan aukera berdintasuna bizikidetza horren giltzarria izango den herritarrek beren hizkuntza aukeraketa era erreal eraginkor eta berdintzailean baliatzerik izan dezaten.

Bederatzigarrena.- Erabakitze eskubidea

Egiaztatu egin ditugu "erabakitze eskubidea" deritzonaren baitan dauden ezberdintasunak, formulazio horrek, bere egikaritzatik, zati batean edo osorik, Estatuarekiko duen harremana aldatzeko aukera ematen baitu eta egikaritza hori eta hortik eratorritako erabakien gauzatzea dira tartean dauden parteen arteko negoziaketarako eta akordiorako gaia.

Gai horrek, batzuek onartua eta besteek arbuiatua denak, sakontze lana behar du bere zilegitasunean, erabaki esparruetan, aldarrikatzeko baldintza demokratikoak argitzeari dagokionez eta ordenamendu juridiko-legalari lotzearen inguruan.

Dena dela, Eusko Legebiltzarrean gauden legebiltzar taldeok hitzematen dugu euskal herritargoak bere etorkizun politikoari buruz askatasunez eta demokratikoki hartuko dituen erabakiak Estatuko erakundeek errespetatuko dituztela.

Erabaki horiek hartuko dira lege ezarrita dauden arau eta prozesuen arabera eta metodo demokratikoak eta herritargoaren eskubide eta askatasunak errespetatuz.

Une bakoitzean indarrean egongo diren lege prozedurak aldarazi ahalko dira herriaren borondateari jarritako mugak izan ez daitezen, baizik eta borondate horren egikaritzarako bermea.